

ZINTAZU
ZINTAZU

XVI. Bazar Nagusia
2008-2-9

AURKIBIDEA

I. Batzar Nagusiko gaiak3

II. 2007ko jardunaren laburpena eta 2008ko proiektuak arloz arlo4-13

A. Hedabideak	4-7
a.1. Otamotz herri aldizkaria	4-5
a.2. Zumarraga-Urretxuko atari digitala: Otamotz.com	5-6
a.3. Goierriko Hitza egunkaria	6-7
B. Kulturgintza	7-8
b.1. Jaiak	7
b.2. Topagunearekin batera egindako ekintzak	7
b.3. Kultur egitasmoa: Kafe antzokia	8
b.4. Sta Barbara inguruko plan proposamena	8
C. Aisialdia: Gazte lokala	8-10
D. Gaztetxoan bertso eskola	11-13
E. U-Zko normalizazio plana (EBPN)	13
F. Elkartearen antolaketa	13-14
f.1. Gogoeta mintegiaren antolaketa	13
f.2. Antolaketa eta partaidetza	13-14
f.2. Lokalaren erabilera	14

III. Ekonomia14-16

1. Finantzaketa iturriak	14-15
2. 2007ko Balantzea eta 2008rako aurrekontua	15-16

IV. Bazkide zerrenda17-19

URTEKO BATZAR NAGUSIA

EGUNA: 2008ko otsailaren 9a

ORDUA: Goizeko 11k

LEKUA: Zintzo-Mintzo elkartearen egoitza

Gai-zerrenda

- 1.- Aurreko batzarraldiaren akta irakurri eta onartzea.
- 2.- 2007ko jarduna eta diru kontuak azaltzea.
- 3.- 2008rako egitasmoak eta aurrekontua.
- 5.- Galdera-erantzunak.

II. 2007KO JARDUNAREN LABURPENA ETA 2008KO PROIEKTUAK ARLOZ ARLO

A. HEDABIDEAK

A.1. OTAMOTZ ALDIZKARIA

Otamotz aldizkariaren helburu nagusia, bi herrietako gertaeren berri euskaraz emanaz, urretxuar eta zumarragarren artean euskal prentsa irakurtzeko ohitura zabaltzea da. Horretarako, gero eta kalitate eta erabilgarritasun gehiagoko herri aldizkaria egiten saiatzen gara.

Lan horretan, egun erdiko kontratuarekin lanean aritzen da kazetari bat. Kazetari horrez gain, hamaika lagun aritzen dira kolaboratzaile gisa, erredakzio lanak egiten, argazkiak ateratzen, hizkuntz zuzenketaz arduratzen, harpidedunen gorabeheraz arduratzen eta beste makina bat lanetan.

Gaur egun 1.500 aleko tirada du Otamotzek. Zintzo-Mintzoko bazkideez gain, aldizkaria etxean jasotzeko interesa adierazi duten herritarrek eta kanpotarrek osatzen dute zerrenda. Gainontzeko aleak toki publikoetan banatzen dira. Helburua pixkanaka harpidedun gehiago izatea da, baina aldizkaria estiman izan eta 12 euroko borondatezko harpidetza ordainduko dutenak.

Herrian banatu beharreko ale gehienek banaketaz Aintzane Arizmendiarieta Zintzo-Mintzoko bazkide eta Otamotzeko kolaboratzailea arduratzen da. Herri-gunetik aparte dauden auzoetara, baserrietara eta herri-tik kanpora, berriz, postaz bidaltzen ditugu.

Postaz bidaltze honek gastua nabarmen garestitu badugu ere, banaketa ondo egitea bermatzen du. Gaur egun inprimategia eta banaketa (seiluak eta banatzea) bakarrik kontuan hartuta aleko kostua 1,78 eurokoa da.

Gaia aldatuz, 2007koa urte garrantzitsua izan da Otamotzekoontzat: 2006 bukaeran diseinu eta eduki berriak aurkeztu genituen eta aldizkari berriak lehen urtebetea osatu du. Erantzun ona jaso du, baina kalitatea hobetzea etengabeko erronka dugu.

Bukatzeko, aspaldiko egitasmoa zena abian jarri dugu: paperean ditugun ehunka argazkiak digitalizatu ditugu. Urte hauetan guztietan egindako lana ondarea da jada eta behar bezala gordetzea eta ahalik eta erabilgarritasun handiena ematea merezi du.

	Banatzaileak	Postaz	Guztira
Urretxu	473	105	578
Zumarraga	481	236	717
Ezki-Itsaso		23	23
Gainerakoak		127	127
	954	491	1.445

A.2 ZUMARRAGA-URRETXUKO ATARI DIGITALA: OTAMOTZ.COM

Hementxe eskaintzen dizkizuegu Otamotzek 2007ko maiatzaren 14a eta abenduaren 31 bitartean izandako bisiten datuak eta estatistikak atariak izan duen bilakaera eta emaitzen berri izan dezazuen:

- Bisitariak: **29.622**. Maiatzetik abendura bisitari-kopuruak **% 70eko hazkunde** izan du.
- Ikusitako orrialde kopurua: **147.657**
- **474** albiste argitaratu dira
- **150** erantzun jaso ditugu
- **45** eduki multimedien eta **33 bideo**
- **Eskelak: 64 urriaren 15ean hasita (2008-1-26)**
- **Nabigatzailea euskaraz** konfiguratuta daukaten erabiltzaileen kopurua ez da asko oraindik; oraindik ere 3 bisitaritik 2k erdaraz daukate konfiguratuta nabigatzailea. Euskaraz konfiguratuta duten erabiltzaileak **% 31** dira.

2008rako helburu orokorrak:

2007an jarri dugu martxan ataria eta lan handia egin da web gunea egunero elikatzen, edukiak sortzen eta atariaren antolaketan. Oso gustura gaude emaitzarekin, baina 2008an ataria egonkortu eta kontsolidatzen lan egin behar dugula uste dugu. Hauek jarri ditugun helburu edo asmo nagusiak:

- Atariaren dinamikari eutsi eta sartuta ditugun edukien nahiz atalen txukunketa egin.
- Blog-komunitatea martxan jarri. Blogak elkarte eta norbanakoei

eskainiko dizkiegu.

- Kolaboratzaile-sarea handitu eta zabaldu.
- Atariaren autofinantziazioa indartu (babesleak, publizitatea..)
- Goierriko Hitzaren web gunearekin elkarlana eta osagarritasuna lortu, teknikoa eta edukiei begira.
- Internet bidezko telebistaren ideia lantzen hasi.

A.3 GOIERRIKO HITZA

Jakin badakizue, Zintzo Mintzo Euskara Elkarteak Goierriko Hitza egunkaria argitaratzen duen Goierriko Hedabideak, SL enpresan parte hartzen duela. Enpresaren Administrazio Kontseiluan bi kide izateaz gain zuzendaritza foroan parte hartu dugu hilean behin egin diren batzarretan. Honez gain, Urretxu Zumarragako hainbat elkarte eta ikastetxek Goierriko Hedabideak SL enpresako partaide den Goierriko Berriak Kultur Elkarteko kide dira.

Aurten Goierriko Hitzak aldaketak izan ditu. Egunkariaren diseinuak eta web guneak aldaketak izan ditu, eta proiektu erakargarriagoa egiten saiatu dira.

Aitortu behar dugu Goierriko Hitza oso proiektu garrantzitsua dela, egunero herriko albisteak euskaraz jasotzeko zerbitzu bat izatea estrategikoa dela iruditzen zaigu. Hala ere, uste dugu jarraipen zehatzago eta zorrotzagoa egin behar diogula elkartetik (Edukia, banaketa...) eta horretan saiatuko gara aurten eta Otamotz.com-ekin elkarlana eta osagarritasuna handitzen

Urretxu eta Zumarragako Udalek 2008an diruz lagunduko dute proiektua eta hitzarmena berritzekotan dira

Goierriko Hitza Urretxu eta Zumarragan

HERRIA	BIZTANLERIA	EUSKALDUNAK		2007/12/31	Familia
		Pertsona	Familia	Emaitzak	Euskaldunen %
BEASAIN	12.750	6.799	2.437	686	%28,15
EZKIO-ITSASO	531	485	157	26	%16,56
LEGAZPI	9.118	4.994	1.823	241	%13,22
ORDIZIA	9.023	5.071	1.864	495	%26,56
URRETXU	6.723	3.051	1.101	268	%24,34
ZUMARRAGA	10.115	4.281	1.580	288	%18,23
GUZTIRA	48.260	24.681	8.962	2.004	%22,36

Otamotz Urretxu eta Zumarragan

HERRIA	BIZTANLERIA	EUSKALDUNAK		2007/12/31	Familia
		Pertsona	Familia	Emaitzak	Euskaldunen %
EZKIO-ITSASO	531	485	157	23	%14,65
URRETXU	6.723	3.051	1.101	578	%52,50
ZUMARRAGA	10.115	4.281	1.580	717	%45,38
GUZTIRA	17.369	7.817	2.838	1.318	%46,44

B. KULTURGINTZA

B.1. JAIK (URRETXUKOETAN)

Aurten ere guztiontzako ezaguna den “kandela piztea” izan genuen Urretxuko jaietan, euskara erreibindikatzeko ekitaldi sinbolikoa da hau.

Asteleheneko “kantu afarian” eguraldi txarra egin zuen, euri zaparrada ugariak izan ziren eta Abenidan lehendabiziko abestia kantatu ondoren Gernikako Arbola plazako karpan guztia antolatu beharra izan genuen. Egoera honen aurrean jendearen erantzuna oso ona izan zen eta guztion laguntzarekin hamahirugarren kantu afaria ospatzeko aukera izan genuen. Giro ona eta kantatzeko gogoia nagusi izan ziren aurten ere.

Abesten bukatzean sobratutako bokadiloak jende artean banatu ziren.

B.2 TOPAGUNEAREKIN BATERA EGINIKO EKINTZAK:

Bi izan dira nagusiki, bata “Irakurri, gozatu, oparitu” kanpaina parte hartu (behean doaz zenbakiak) eta azaroaren 23an Donostian eginiko “Euskara elkarteak ibilian” jardunaldietan parte zuzena hartu genuen (www.e2ibilian.org).

Irakurri		
02/06	2	% 5,56
06/10	4	% 11,11
10/12	6	% 16,67
12/16	11	% 30,56
16/18	3	% 8,33
18/...	10	% 27,78
	36	

Erosi		
02/06		% 0,00
06/10		% 0,00
10/12		% 0,00
12/16		% 0,00
16/18		% 0,00
18/...	2	% 100,00
	2	

B.3. KULTUR PROIEKTUA: KULTUR ERROTA LAN TALDEA ETA KAFE ANTZOKIA

Legealdi berriarekin batera, heldu nahi zaio gaiari berriro ere. Zaila eta erronka handia dela dakigun arren, uste dugu estrategikoa izan daitekeela eta merezi duela beste saiotxo bat. Kulturgintza biziberritzeko kalitatezko espazio zabal, bizi eta sortzaileak behar ditugu eta euskararentzat prestigio-leku izango direnak.

Lantalde bat martxan da dagoeneko eta bertan parte hartuko dugu. Dena den, informazioa nahi izanez gero, helbide honetan duzue: www.blogak.com/kultureerrota.

B.4. SANTA BARBARA INGURUKO PLAN PROPOSAMENA

Lekaio elkarteak luzatu digun proposamenean Santa Barbara inguruko bost ibilbide seinalatzea proposatzen dute, horretarako zenbait elementu erabiliz: harrizko zutoinak (toponimia oinarriak: 14), zurezkoak (bidegurutzeetarako zutoinak: 8), ... Dena den, batzarrean argibide gehiago emango ditugu.

C. AISIALDIA: GAZTE LOKALA

Beharrezko eginiko balorazioa: 2006ko ekaina

2002ko abenduaren 5ean, Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkartek eta bi udalek bultzatutako proiektuari esker, Gazte Lokala abian jarri zen. Lokala Labeaga 12 etxe azpian kokatzen da, Goierrri Kirol Elkartearen ondoan.

Lokala erabiltzeko aukera 11 urtetik aurrerako gazteei luzatu zaie, hala ere 11 eta 13 urte bitarteko gazteak dira lokalaren ohiko erabiltzaileak. Horrela, 2006-2007 kurtsoari dagokionez, 117 bazkideko zerrenda osatu da.

Euskararen erabilera bultzatu eta gazteei beraien aisialdia kudeatzeko lokala eta bitartekoak luzatzea da Gazte Lokalaren helburu nagusienetakoa. Eskola ezberdinetako gazteen arteko harremanak sendotzea helburuen artean aurkitzen da. Dena den, aisialdia bera euskaraz antolatzea bihurtzen da helburu nagusi.

Lokala ostiraletik igandera arte zabaltzen da. Hala ere, beste jaiegun guztietan ere zabalik dago. Horrela, zubi, gabonetako opor eta Aste Santuan

ere lokala zabalik egon da. Ordutegia, ostiraletan, arratsaldeko seietatik zortziak arte da; larunbat eta igandetan berriz, arratsaldeko lauretatik zortziak arte. Beste jaiegun guztietan larunbat eta igandetako ordutegi berdinean zabaltzen da.

Lokalak elkarte baten modura funtzionatzen du, gazte bakoitzak bazkide egiteko 24 euro ordaindu behar izan ditu.

Lokalaren koordinazioa bi pertsonak eramatean dute, begirale lana berriz seiren esku geratzen da. Hala ere, egoerak hala eskatuta, egunen batean beste begiralaren baten laguntza behar izan dugu.

Egingo diren ekintzak aurrez prestatzen dira, gazteen iritzia presente izanda eta egin nahi dutena beti kontutan hartuta. Hilean behin egiten dugu begiraleok bilera, eta saiatzen gara hurrek, aurrez jakin dezaten zein ekintza egin behar ditugun. Hala ere esperientziak erakutsi digu, ekintzek orokorrean ez dutela arrakasta handiegirik, ez baitakigu egun bakoitzean zenbat ume etorriko diren ezta zein ordutan iritsiko diren ere. Horregatik aurtan aurreko urteetan baino ekintza gutxiago egin ditugu. Hala ere umeak zerbait egiteko prest agertu direnean, (futbola, eskulanean bat, frontenis txapelketa...) begiraleok ere beraiekin parte hartu dugu.

Aurtengo ikasturtean bi irteera burutu ditugu. Lehena urtero egin izan dugun moduan Bilboko gabonetako parkera izan zen eta bigarrena berriz, Anoetara Errealaren partidua ikustera. Bietan erantzun oso ona izan dugu, autobusa puntaraino bete dugularik. Irteera bera ere oso ongi irten da bietan, haurrak bertatik oso pozik itzuli dira eta baita begiraleak ere. Bi irteerak hurrengo urteetan errepikatzeke modukoak iruditu zaizkigu.

Ikasturte honetan oso pozik egon gara begiraleok, asistentzia orain arteko altuena izan da, asteburuko egun denetan leporaino egon baita lokala, eta kopurua amaieran ez da batere gutxitu. Bestalde taldea oso jatorra da, eta arazo gutxi eman ditu. Ordenagailu gelatik kanpo ere badakite entretenitzen, mahai joko, muralak egin, kirolak eta abarretan pasatzen dute denbora, nahiz eta gehien gustatzen zaiena ordenagailu gela izan.

Euskarari dagokionez berriz, orokorrean taldea nahiko euskalduna izan da. Hala ere nabaria izan da haur askoren joera erdalduna. Badakigu ez dugula lortuko haur erdaldunek kalean euskara erabiltzea, baina haur euskaldunei erdararako salto hori ez ematen lagundu behar diegu. Guk behin eta berriz gogora arazi beharrik gabe, lokalean denek euskaraz hitz egitea lortu nahiko genuke, nahiz eta badakigun ez dela horren erraza. Beraz urtero bezala hau izango da helburu nagusia.

Orain arteko balorazioa ona izan da. Hala ere, gazteak beraien aisial-

dia euskaraz eta egoki antolatzen irakasteko lanak aurrera jarraitu behar baldin badu, Gazte Lokalak beraien interes eta beharretara moldatzeko gaitasunarekin jarraitu behar duelakoan gaude.

Gazte-lokala balorazioa 2007 (urria-abendua)

2007ko urriaren 5ean eman genion hasiera aurtengo ikas-turteari, hau da 2007-2008 ikasurteari. Aurten aldaketa batzuk egon dira begirale zein koordinazio taldean, hiru begiralek utzi egin dute euren lana dela medio: Ixiar Zubiaurre, Jokin Murua eta Jon Aztiria. Hauetako bi koordinazio lanetan ere aritzen ziren, Ixiar eta Jokin. Orain berriz lan honetan Jeni Galdos dabil. Beste hiru begirale berri dabilta aurten, Ane Aldanondo, Ainara De La Fuente eta Unai Orbegozo. Begirale tituludunak denak.

Bazkide kopuru aldetik, iazko kopurua ia bikoiztu egin dugu, izan ere 170 bazkide ditugu dagoeneko, 6. mailako gazteetatik hasi eta 2.D.B.H-koak bitarte etortzen dira, hauek barne, lehenengo urtea izanik 2.D.B.H-koak lokalean jarraitzen dutela.

Gazte talde hau, beste urteetakoekin konparatuz, elkartuago dagoela ikus daiteke, ez dute eskolen arteko diferentziarik egiten eta adin ezberdinetakoak elkarrekin ondo eramaten dira. Hori ezaugarri positibo bat delakoan gaude. Euskararen erabilera berriz, nahiko baztertua dutela ikus daiteke, erdarara jotzeko joera dute.

Aurten futbolin bat ere jarri dugu lokaleko gela batean, eta gustura agertu dira gazteak. Nahiz eta arazotxoren bat egon, orokorrean gustura eta ondo erabiltzen dute berau.

Hasierako hilabeteak gogor samarrak izan dira, jende asko etorri baita eta gainera nahiko aztoraturik ibili dira batzuk, zenbait arazo sortuz. Orain badirudi zerbait lasaitu direla, eta seriotasun pixka bat ere jartzen dutela.

Orain Gabonetako oporrak medio direla, jende gutxiago dator lokalera, batzuk kanpora joan direlako. Opor hauetan Bilboko Gabon Parkera irteera bat egitea pentsatua dago.

Azken urtetako datuak

		Matrikulatutakoak	
	Bazkide kopurua	LH6, DBH1 eta DBH2	LH6 eta DBH1
2005-2006	90	%21,95	%31,25
2006-2007	117	%27,36	%42,07
2007-2008	170	%39,08	%60,93

D. GAZTETXOEN BERTSO ESKOLA

Zumarraga-Urretxuko gaztetxoek bertso eskolak 2001 urteko irailean ekin zion bere aro berriari, Zintzo Mintzo euskaltzale elkartearen babesarekin. Ordutik hona, makina bat haur igaro da bertso eskolatik. Batzuk besteek baino denbora gehiago eman dute bertso eskolan, baina denengan utzi du taldetik igaro izanak arrastotxoak. Ez baita alperrikoa azken urteotan, gaztetxoengan bertsozaletasuna sustatzeko bidean, bertso eskolak egindako ahalegina.

Egungo gaztetxoek bertso eskolaren ezaugarri nagusiak ondorengo lerroetan laburbiltzen dira:

- Aurtengo ikasturtean, aurreko bietan bezala, hiru talde ezberdinek osatzen dute gaztetxoek bertso eskola, adinaren eta haurrek bertso eskolan daramaten denboraren arabera banaketaren pean. Horrela, zaharrenek taldeak 8 haur ditu, bigarrenak 10 haur eta txikienek taldeak 6. Guztira, beraz, 24 haur.
- Ostiralero biltzen gara Urretxuko kultur etxean. Zaharrenek taldeak ordu t´erdiko saioak egiten ditu eta beste bi taldeek ordubetekoak.
- Materiala etengabe berritzen joatea da bertso eskolaren erronka; horrela, hasi berriekin orain lau urte argitaratutako liburuko ariketak erabiltzen ditugun moduan, zaharrentzat geroz eta ariketa konplexuagoak asmatzen jarduten dugu astetik-astera, baita geroz eta doinu ezezagunagoak kantatzen ere.
- Haurrek egindako bertso sortak ere kantatu ohi ditugu sarritan, euren kontura lehiaketetara bidalitakoak eta horrelakoak.

Igaro berri den 2006 urtean ere, klasez kanpoko hainbat ekimen eraman dugu aurrera, bertso eskolan egiten den lana kanpoko jendeari erakusteko.

- Inguruko bertso eskoletako haurrekin zenbait topaketa eta afari egin ditugu urtean zehar.
- Martxoan bertsoa: aurten estrainez herriko txapelketan parte hartu dute gaztetxoek bertso eskolako zenbait gaztetxok. Horrez gain, bertso-paper lehiaketako sari banaketan bertso kantari aritu gara, eta, orohar, ziklo guztian partehartze zuzena izan dugu (bertso afaria,

gazte-txoen bertso eskolako klase irekia,...).

- Martxoaren amaieran, Bertsozale Elkarteak antolaturiko III. Bertso Eskolen Eguna delako ihardunaldian parte hartu dugu Oñatin.

- Udaberrian, eskolarteko txapelketan parte hartu dugu, saio oso txukunak eginaz, talde ugari taularatuz eta gainerako bertso eskolen aurrean modu eredugarrian lan egin dela erakutsiz. Sari ugari lortu dira (Amaia Iturriotzen Euskal Herriko txapela barne).

- Herriotako jai ezberdinetan bertso kantari aritu gara, azken urteotako bideari jarraituz (San Juan sua, Santa Isabel jaiak, Santa Anastasia Jaiak,...).

- Urtean zehar, ikasleek euren kontura hainbat bertsopaper sariketetan parte hartu dute, sarritan emaitza paregabeak eskuratuz (Lazkao Txiki, Sabino Arana, Okelar, Balendin Enbeita,...).

- Abenduan, Luzio Gabiriaren omenezko saioa baino lehen bertsolariekin afaltzeko aukera izan dugu urtero bezala.

- Udazkenean gaztetxoentzako bertso saioak antolatu dira. Azaroan, Hamaika Bertuteko Egoitz Alkorta eta Mikel Arrillaga izan dira gure artean eta abenduan Miren Amuriza, Kristiñe Txoperena eta Hodei Iruretagoiena. Saio hauek aberasgarriak dira oso.

- Inguruko herrietako bertso eskolekin harreman oso ona daukagu eta tarteka beraiekin biltzen gara, elkarrekin kantatu eta zenbait ekintza aurrera eramateko.

Datozen hilabeteetan bide beretik jarraitzea da bertso eskolaren asmoa. Hala ere, 2008a urte berezia izango dela aurreikusten dugu, zenbait berritasun lantzen ari baikara gaztetxoentzako bertso eskolaren baitan:

- Bertso eskolako webgune berria (www.zubertsotan.net) gaztetxoentzat ere tresna baliagarria izango dela uste dugu, egindako ekintza eta jardueren berri emateaz gain, eurek egindako bertso sorta eta bestelakoak modu errazean argitaratzeko modua izango baita bertan.

- Bertsotarako hain baliagarria den irudimena lantzeko jarduera osagarriak bultzatzeko ahaleginean murgildurik gaude uneotan (testu idazketa eta irakurketa saioak, esaterako).

Azken urteotan, Gipuzkoa mailan bereziki, erreferente bilakatu ostean, jauzi kualitatiboa emateko garaia dela uste dugu eta ahalegin horre-

tan gabilta, urtetan gure ezaugarri nagusi izan den lagun giro jatorra ardatz harturik, betiere.

	Ikasleak	Taldeak	Bermatrikulazioa	Bermatrikulazioa %
2001-2002	25	2		
2002-2003	22	2	12	% 48,00
2003-2004	8	1	3	% 13,64
2004-2005	15	2	8	% 100,00
2005-2006	18	3	13	% 86,67
2006-2007	25	3	18	% 100,00
2007-2008	24	3	16	% 61,54

E. URRETXU-ZUMARRAGAKO NORMALIZAZIO PLANA (EBPN)

2007. urtean ere elkarteko bazkideek parte zuzena hartu dute zenbait egitasmotan: mintzalagunan eta liburu-lanketan esate baterako, gidari lane-tan.

F. ELKARTEAREN ANTOLAKETA

F.1. MINTEGIAREN ANTOLAKETA

2007an saio txiki bat egin genuen arren, ez genuen ahalmenik izan gai honekin aurrera egiteko eta 2008rako lan bikoitza dugu: elkartearen egitekoaz eta etorkizunaz hausnartu, batetik, eta legegaldi honetako erronkak definitu eta aurrera eramateko egitura egokia ezarri, betiere bi Udalekin ba-tera.

F.2. ANTOLAKETA ETA PARTAIDETZA

Bazkideen partaidetza eta egoki informaturik izatea da 2007rako dugun erronketako bat. Elkartea handitzen ari da (Ekonomikoki, profesional gehiago...), baina, badakigu oso ongi elkartearen funtsa bere oinarri soziala dela. Elkartearen egitasmoak oso garrantzitsuak izango dira, baina, gizartean sustraitua egotea ez da gutxiago.

Horretarako hainbat ekintza jarri nahi ditugu martxan:

- Dauden lan taldeak indartu eta berriak eratu. Jendea erakarri.
- Bazkideak (eta harpidedunak) etengabe informatuta egon daitezen

euskarri digitala erabiliko dugu: www.otamotz.com

F.3. LOKALAREN ERABILERA

- Zintzo Mintzo elkarteak: Otamotz eta Otamotz.com (bi langile)
- Goierriko Hitza (bi langile)
- Gazte Lokala: ostiraletan 18-20 eta larunbata eta igandetan 16-20. Opor egunetan 16-20.
- Institutuko gazteak (Gainzuriko jangelan bazkaltzen duten batzuk): astelehen, asteazkenean eta ostegunetan 13:45/14:30.
- Gabonetako eta Aste Santuko ekitaldiak prestatzeko edo eguraldi txarra egiten duenerako alternatiba
- Udalekuak: apiriletik uztaiera
- Merkataritza plana (EBPN): mintzataldeak
- Lorratz elkarteak: astearte eta ostegunetan 17-19

III. EKONOMIA

1. FINANTZAKETA ITURRIAK

a) Autofinantzaketa

Elkartearen autonomia indartu eta proiektu berriei ekiteko ezinbestekoa da autofinantzaketan gora egitea. Ekintza hauek aurrakusten ditugu:

- Otamotz: harpidetza areagotu. Gaur egun 460 pertsona dira elkarteak diruz laguntzen dutenak (334 bazkide eta 126 harpidedun).
- Hedabideen publizitate salmenta handitu. EKTko Iragarri S.L. enpresak egingo du lan hori. Otamotz.com-ekoak 2008an guk egitea proposatu nahi dugu.
- Bazkidetza handitzeko lanarekin jarraitu eta beste eremu batzuetara zabaltu (enpresak...)
- Finantziario iturri berriak bilatu

a) Diru laguntza publikoak

Elkartearen finantziarioaren % 69 gutxi gora behera erakunde publikoetatik dator.

- Urretxu eta Zumarragako Udalekin 2008 urterako sinatuta dugun hitzarmena (49.068,76 eurokoa)
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako deialdiak (euskararen erabilera, teknologia berriak, hedabideak...)
- Gipuzkoako Foru Aldundia (elkarteei zuzenduak, teknologia berriak...)

2. 2007KO BALANTZEA ETA 2008RAKO AUREKONTUA

SARRERAK 2007						
	Aurrekontus 2007		Balantzea 2007		Desbid.C	Desbid.%
Otamotz		7.873,52		9.693,00	1.819,48	% 23,11
Publizitatea	6.773,52		8.363,99		1.590,47	% 23,48
Harpidetza	1.100,00		1.329,01		229,01	% 20,82
Otamotz.com		19.500,00		7.500,00	-12.000,00	-% 61,54
Eusko Jaurlaritza	4.000,00		4.000,00		0,00	% 0,00
Foru Aldundia	3.500,00		3.500,00		0,00	% 0,00
Babesleak	12.000,00		0,00		-12.000,00	-% 100,00
Gazte Lokala	1.920,00	3.420,00	2.796,00	4.176,00	756,00	% 22,11
Bertso Eskola	1.500,00	1.500,00	1.380,00	1.380,00	-120,00	-% 8,00
Jaietako ekitaldiak	982,80	982,80	650,00	650,00	-332,80	-% 33,86
Bazkideen kuotak	7.600,00	7.600,00	7.170,00	7.170,00	-430,00	-% 5,66
Foru Aldundia	5.759,00	5.759,00	7.488,94	7.488,94	1.729,94	% 30,04
Eusko Jaurlaritza	2.799,00	2.799,00	3.397,25	3.397,25	598,25	% 21,37
2006 Atari digitala	0,00	0,00	6.318,56	6.318,56	6.318,56	
Beste batzuk	0,00	0,00	929,75	929,75	929,75	
Udalekiko hitzarmena	47.181,50	47.181,50	47.181,50	47.181,50	0,00	
GUZTIRA	95.115,82	95.115,82	94.505,00	94.505,00	-610,82	-% 0,64

Irteerak 2007						
	Aurrekontus 2007		Balantzea 2007		Desbid.C	Desbid.%
Otamotz		45.834,00		45.639,29	-194,71	-% 0,42
Kazetaria	16.897,25		16.297,26		-600,00	-% 3,55
Inprimategia	23.588,14		23.827,89		239,75	% 1,02
Banaketa	2.532,44		2.350,30		-182,14	-% 7,19
Materiala	2.816,17		3.165,84		349,67	% 12,35
Otamotz.com		22.553,16		26.015,61	3.462,45	% 15,35
Personal gastuak	16.730,16		16.730,16		0,00	% 0,00
Kanpo zerbitzuak	5.323,00		5.841,16		518,16	% 9,73
Erosketak	500,00		493,40		-6,60	-% 1,32
(2006) Ordenagailuak/altzariak			2.950,89		2.950,89	
Gestoria	1.392,00	1.392,00	1.113,60	1.113,60	-278,40	-% 20,00
Topagunea: kuota	657,00	657,00	1.117,60	1.117,60	460,60	% 70,11
Gazte Lokala		13.718,89		14.095,72	376,83	% 2,74
Begirale soldata	9.568,00		9.207,50		-360,50	-% 3,77
Anbuzaduna	1.913,60		1.774,00		-139,60	-% 7,30
Garbiketa	1.646,74		925,00		-721,74	-% 43,83
Gastu orokorrak	590,55		2.189,22		1.598,67	% 270,71
Bertso Eskola		5.818,80		3.296,57	-2.522,23	-% 43,35
Begirale soldata	3.650,40		2.110,27		-1.540,13	-% 42,19
Koordinazioak	504,40		0,00		-504,40	-% 100,00
Materiala-jarduerek	624,00		624,00		0,00	% 0,00
Gastuak (autobusak, merienda)	1.040,00		562,30		-477,70	-% 45,93
Jaietako ekitaldiak	1.062,99	1.062,99	1.015,75	1.015,75	-47,24	-% 4,44
Gastu orokorrak	4.000,00	4.000,00	4.397,91	4.397,91	397,91	% 9,95
GUZTIRA	95.036,84	95.036,84	96.692,05	96.692,05	1.655,21	% 1,74

AURREKONTUA 2008					
	IRTEERAK		SARRERAK		Defizita
	2008		2008		
Otamotz		48.371,12		9.813,99	38.557,13
Kezetaria	17.606,94				
Inprimategia	24.828,66				
Banaketa	2.638,80				
Materiala	3.296,72				
Publizitatea			8.363,99		
Harpidetza			1.450,00		
Otamotz.com		24.040,32		19.500,00	4.540,32
Pertsonal gastuak	17.432,83				
Kanpo zerbitzuak	6.086,49				
Erosketak	521,00				
Eusko Jaurlaritza			4.000,00		
Foru Aldundia			3.500,00		
Babesleak			12.000,00		
Gestoria	1.450,46	1.450,46			
Topagunea: kuota	1164,54	1.164,54			
Gazte Lokala		14.295,05		3.250,00	11.045,05
Begirale soldata	9.969,83				
Arduraduna	1.993,97				
Garbiketak	1.715,90				
Gastu orokorrak	615,35				
Kuotak			3.250,00		
Bertso Eskola		6.063,19		1.359,00	4.704,19
Begirale soldata	3.803,72				
Koordinazioa	525,58				
Materiala-jarduerak	650,21				
Gastuak (autobusak, merienda)	1.083,68				
Kuotak			1.359,00		
Jaietako ekitaldiak	1.107,64	1.107,64	982,80	982,80	124,84
Gastu orokorrak	4.582,62	4.582,62			
Bazkideen kuotak			7.170,00	7.170,00	
Foru Aldundia			6.000,00	6.000,00	
Eusko Jaurlaritza			3.000,00	3.000,00	
Beste batzuk			929,75	929,75	
Udalekiko hitzarmena 2007			49.068,76	49.068,76	
GUZTIRA	101.074,94	101.074,94	101.074,30	101.074,30	0,64

Arren, ez bada galdu euskera,
nere anaia maiteak!
Galtzen badegu... galduak gera
gu eta gure semeak!
Beti euskaraz hitz egin, bada,
oro, zahar eta gazteak,
esan ez dedin denok gerala
euskaldun bihotzgabeak.

J.M. Iparragirre

ZINTZU
ZINTZU